

Euskara eta hizkuntza-teknologiak: egungo egoera eta zenbait proposamen

Eusko Legebiltzarreko
Kultura, Euskara eta Kirol Batzordea

2018-04-16



Iñaki Alegria Loinaz eta Xabier Artola Zubillaga
Ixa Taldea, UPV/EHU



- Sarrera
- Diagnostikoa: *Euskara aro digitalean* (META-NET txostena, 2012)
- Hizkuntza-teknologiak sustatzeko politikak
 - Europa
 - Espainia
 - Euskal Autonomia Erkidegoa
- Ondorioak eta proposamen batzuk

Sarrera





Sarrera: hizkuntza-teknologia

- Hizkuntza-teknologia gure bizitzetan sartu da oharkabeen.
- Ordenagailuak, Internet eta sare sozialak, telefono mugikorak, liburu elektronikoa... denetan aurkitzen dugu teknologia horren erakusgarriren bat edo beste.
 - Ahozko aginduak, itzulpen automatikoa, hizkuntza-zuzenketa, hiztegi-laguntzak, edukien bilaketa amaraunean...
- Teknologia komuna izan arren, hizkuntza bakoitza mundu bat da: formalizazio, tresna eta baliabide bereziak behar dira.
- Aurrera aterako bada, hizkuntza batek ezin du tren hori galdu.

Sarrera: aurrekari bat

2016: Euskarazko IKTak.
Gomendioak herri-aginteentzat.

Euskararen Aholku Batzordea
(IKT Batzorde-atala)
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

<https://labur.eus/OLLLG>

Egoera aztertu ondoren, gomendio batzuk ematen dira;
lehentasun handienekoen artean, hauxe da 12.a:

*Hizkuntza-teknologiak garatzen lagundu eta berriazko plana
garatu.*




Sarrera: zantzu positiboak...

- Euskara Interneten
- *Global Language Network* (MIT):

<https://labur.eus/FmqFR>

- Liburu-itzulpenetan, 54.a da euskara, 247tik.
- Wikipedian, 47.a, 134tik.
- Twitterren, 36.a, 70etik.
- ...

Twitter





Sarrera: ...eta errealitatea

- Euskara aro digitalean txostena (META-NET, 2012)
- Puntueus fundazioaren azterketa (2018):

Euskararen Interneteko erabilera egonkor mantendu da azken 3 urteetan.

- Islandiaren kasua:

Icelandic language battles threat of 'digital extinction'

Iceland's mother tongue and cultural identity is drowning in an online ocean of English

<https://labur.eus/ITXuu>

Euskara aro digitalean

*Euskara Aro Digitalean -
The Basque Language in the Digital Age
(META-NET, 2012)*

Hernández I., Navas E., Odriozola I., Sarasola K., Díaz de Ilarraza A., Leturia I., Díaz de Lezana A., Oihartzabal B. eta Salaberria J., 2012. META-NET White Paper Series.

<https://labur.eus/FUD30>





Txostenaren ondorio nagusiak

- Alde batetik ingelesa dago, eta bestetik beste guztiak.
- Aztertutako 30 hizkuntzetatik, 21ek duten babes digitala “hutsa” edo, kasurik onenean, “eskasa” da.
- Euskara 21 hizkuntza horien artean dago, ez azkenekoetakoa:
 - Hizketa-prozesamendua: Osagabea.
 - Itzulpen automatikoa: Apala / Ez (gaur egun: Osagabea).
 - Testu-analisia: Osagabea.
 - Baliabideak: Osagabea.
- Egoera *baikor baina zuhur aztertu beharrekotzat jotzen da.*


Sustatzeko politikak European

Language equality in the digital age - Towards a Human Language Project.


EPRS

(European Parliamentary Research Service), 2017.

<https://labur.eus/kx1Pi>



Proposatutako politikak



Sustatzeko politikak Espainian

Plan de Impulso de las Tecnologías del Lenguaje

Ministerio de Turismo, Energía
y Agenda Digital,
2015.

<https://labur.eus/VsB84>





Plan de Impulso de las Tecnologías del Lenguaje

Ardatzak

- Babesa eskaini azpiegitura linguistikoen garapenari (hizkuntza koofizialak barne, administrazio autonomoekin hitzartuta).
- Bultzada eman hizkuntzaren industriari: ikerkuntzatik industriara.
- Administrazio publikoa teknologion bultzatzaile eta bezero, plataforma bateratuak sortuz.
- Itsasargi-proiektuak hizkuntza-teknologietan: osasuna, justizia, zaintza teknologikoa, turismoa, hezkuntza, kultura...

Aurrekontua

- 90 milioi euro, 5 urte



Jorratzeko lerroak

- Hizkuntza-baliabide eta -tresnen garapena.
- Hizkuntza-tresnen integrazioa eta hodei-konputazioa (RES sarea).
- Itzulpen automatikoa.
- Industria eta administrazioko domeinu espezializatuetarako proiektu transbertsalak.
- Ikerkuntza eta formazio espezializatua.
- Nazioarteratzea.



Planaren garapena

- Urratsak:
 - Planaren gobernantza, koordinazioa eta jarraipena.
 - Azpiegitura linguistikoen garapena.
 - Administrazio publikoa hizkuntza-industrien motor.
 - Itsasargi-proiektuak martxan jartzea.
- Euskara:
 - Oraingoz geldirik, administrazioen arteko akordioen zain.
- Ixa Taldea:
 - Parte hartu du planaren erredakzioan eta justizia-arloko itsasargi-proiektuan ari gara.
 - Aukera gutxiago eragiteko, zentro autonomoa ez izateagatik.
- Langune:
 - Aholkulari-lana, industriarekiko lotura.



Zenbait itsasargi-proiektu

- CENDOJ (*Centro Nac. de Doc. de Justicia*):
 - ~1 milioi euro
 - Ixa Taldea partaide
- CENIO (*Centro Nac. de Inv. Oncológicas*):
 - Osasun arlorako bulego teknikoa
 - ~2 milioi euro
- RAE (*Real Academia de la Lengua Española*):
 - ~0,6 milioi euro
- BSC (*Barcelona Super Computing*):
 - ~8 milioi euro


Sustatzeko politikak EAEn



ELKARTEK 2017

Arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntza programa
Programa de apoyo a la investigación colaborativa en áreas estratégicas

AD



2020



Industria Saila

- Etortek eta Elkartek deialdiak, tresna interesgarriak:
 - UPV/EHU, Elhuyar, Tecnalia eta Vicomtech lankidetzan: Berbatek, Ber2Tek, Modela eta ElkarOla proiektuak.
- RIS3 estrategiarekin lotzeko zailtasunak:
 - Kultura eta sormenaren industriak.
 - Langune Eiken clusterrean integratu behar izan da.
- *Euskadiko 2020ko Agenda Digitala*-ren aukerak:
 - 3. ardatza: *Administrazioa ingurune digitalean*.
 - 7. erronka: EIKTek duten ahalmena aprobetxatuz, zerbitzu publikoak eta zerbitzuok herritarrei emateko modua berritzea.
 - 8. erronka: Euskadin administrazio publiko ireki, efikaz eta efizientea sendotzea.

Ondorioak





Ondorioak

- **Hizkuntza-teknologiaren arloak garrantzi estrategikoa du hizkuntzen etorkizunari begira. Euskarak ere hor behar du.**
- **HTen arloa ardatz bat izango da Europan hurrengo urteetan, eta inbertsioak egingo dira.**
- **Estatu Espainolean bada dagoeneko plan bat, diruz ondo hornitua.**
- **Euskal Herrian pareko plan bat beharko litzateke lehenbailehen.**
- **Egokiera onean gaude erronkari heltzeko, aurretik egindako lanean oinarrituta.**

Proposamenak





Proposamenak

- **Erreferentzia-zentro bat sortzea**

UPV/EHUrekin eta Langune/Eiken-ekin lankidetzan.

Ikerketa eta trebakuntzan ez ezik, berrikuntzan eta transferentzian ere eragingo duena.

- HiTZ litzateke, UPV/EHUko Informatika Fakultatearen barruan, erreferentzia-zentro horri begirako lehen urratsa.

HiTZ

Hizkuntza Teknologiako Zentroa
Basque Center for Language Technology

- **Trebakuntza espezializatua bultzatu:** doktoregoa, masterrak, etengabeko formazioa.

- **Arlo hau Eusko Jaurlaritzaren hurrengo zientzia-planaren lerro nagusien artean sartzea.**

- **Zenbait itsasargi-proiektu indartsu diseinatzea eta garatzea, eta erosketa publiko berritzailea sustatzea.**